

EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA PRESTATZEKO PROZESUA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana gauzatzeko, prozesu ireki eta aratu bati jarraitu zaio 2017an zehar; prozesu horretan, hausnarketarako eta eztabaida politiko, tekniko eta sozialerako bideak eta uneak zabaldu dira. Eztabaida sozialaren kasuan, bereziki garrantzitsua izan da EAEko emakumeen elkarteen mugimendua VII. Plana prestatzeko prozesu osoan zehar.

I. FASEA. PROIEKTUAREN HASIERA

Emakundek VII. Planaren oinarri-dokumentua prestatu zuen, hauetatik abiatuta: VI. Planaren ebaluazioa, Berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazio txostenak, Emakumeen eta Gizonen Zifrei buruzko 2016ko txostena, 2030erako Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen Helburuak, Europako estrategia eta Gobernuaren Programak XI. legealdirako.

II. FASEA. VII. PLANAREN OINARRI-DOKUMENTUAREN INFORMAZIOA ETA EZTABAIDA

Egin dira:

- 3 lan-tailer, berdintasun-arloan ardura duten Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, toki-erakundeetako eta beste euskal erakunde publiko batzuetako teknikariek.
- 6 lan-tailer, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko azpibatzerde aholku-emaeleen emakume-elkarteetako ordezkariak.
- Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluari eta Aholku Batzordeari aurkeztea.

Oinarri-
dokumentu

III. FASEA. I. ZIRRIBORROA HOBETZEA ETA BALIOZKOTZEA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari aurkeztea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeari aurkeztea.

Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeari aurkeztea, etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko .

I. Zirriborria

IV. FASEA. II. ZIRRIBORROA JENDAURREAN JARTZEA

Gizarte zibilari, erakundeei eta agente politiko, ekonomiko eta sozialei aurkeztea eta eztabaida presentziala eta online bidezkoa piztea, ekarpenak jasotzeko.

II.
Zirriborria

V. FASEA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA ONARTZEA

Nahitaezko txostenak izapidetzea.

Emakunderen Kontseiluak onartzea.

Jaurlaritzaren Kontseiluak onartzea.

Behin betiko
dokumentua